



Memoria

2023

KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak onartua

Donostia, 2024ko ekainak 24

A U R K I B I D E A

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK.....	2
1.1. ZERBITZUAK.....	2
1.2. ERABILTZAILEAK.....	3
1.2.1 Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak.....	5
1.2.2 Egoitzak.....	7
1.2.3 UPSak.....	8
1.2.4 Aldi baterako egonaldiak.....	10
1.2.5. Ordiziako zentroa eta bilakaera.....	11
2. BATERATZE PROZESUA ETA URTEKO KUDEAKETA PLANA.....	12
3. AURREKONTUAREN KUDEAKETA.....	14
3.1. GASTUAK.....	14
3.2. DIRU SARRERAK.....	16
ERANSKINA. KABIAKO KUDEAKETA PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA.....	17

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2023 urtean KABIak 16 egoitza kudeatu ditu, hauetatik 9 kudeaketa zuzenekoak eta 7 kudeaketa integralekoak.

2023. urtean, osasun-larrialdi amaierarekin batera, COVIDaren jarraipen endemikora egin genuen salto, beste arnas infekzio akutuen jarraipen berberak ezarriz eta une oro eskumena duten erakundeek ezarritako jarraibideak bete eta haiekin koordinatuz lan egin zen. Honek, egoitzak normaltasunera itzultzea ekarri zuen.

1.1. ZERBITZUAK

2023an KABIak beheko taulan adierazitako zerbitzuak kudeatu zituen.

2023ko otsailean, Arrasate eta Tolosako egoitzetan zaintza-eredu berrira egokitzeko obrak hasi zirenez, hauek bideratu ahal izateko, obrek iraun bitartean, egoitzen jatorrizko plazak murriztu egin ziren. Obrak amaitu ostean Arrasatek 93 plaza izango ditu eta Tolosak 139.

2023ko urrian, Azkoitiko UPSIa eraberritzeko obrak hasi ziren eta ondorioz obrak amaitu bitartean Azkoitiak UPSI 2 plaza gutxiago eta oinarrizko 8 gutxiago izango ditu. UPSIko erabiltzaileak tutoretzapeko apartamentuak kokatutako gunera lekualdatu behar izan ziren aurrez gunea egokitu ostean. Albi berean, apartamentuetako erabiltzaile bakarra egoitza zerbitzura lekualdatu zen. Obrak amaitutakoan UPSI plazak 15 izango dira eta oinarrizkoak 54.

2023ko azaroan Pasaia egoitzari zegokion kontratu berria indarrean sartu zen eta zerbitzuari zagozkion pleguetan jaso bezala egoitza 40 plaza erabilgarri izatetik 39 izatera pasa zen plaza bat bizitza amaierako zaintzetarako bideratuz.

Eibarko egoitzaren kasuan, 4 oinarrizko plaza gutxiago izan ditugu 2023. urtean, itokinen ondorioz logelak itxi behar izan baitziren.

Egoitza	Oinarrizko plazak	UPSI plazak	Aldi baterako egonaldiak	Urgentziazko plazak	Egoitzako plazak guztira	Obregatik ez erabilgarri	Eguneko zentroko plazak
Andoain	96	-	-	-	96	-	-
Arrasate	104	-	-	-	104	30	-
Azkoitia	54	14	-	-	68	10	20
Bergara	81	18	-	-	99	-	-
Eibar	95	-	-	-	95	4	-
Elgoibar	48	-	-	-	48	-	-
Errenteria	125	15	-	-	140	-	-
Hernani	80	32	-	-	112	-	60
Irun	68	-	-	-	68	-	-
Lasarte-Oria	42	15	-	-	57	-	25
Onati	68	15	-	-	83	-	30
Ordizia	49	-	7	2	58	-	-
Pasaia	39	-	-	-	39	-	15
Tolosa	147	-	-	-	147	28	-
Villabona	39	-	-	-	39	-	-
Zumaia	52	-	-	-	52	-	-
Guztira	1187	109	7	2	1305	72	150

1.2. ERABILTZAILEAK

KABIAK 1.829 pertsonari eman zien arreta 2023. urtean. Hurrengo taulan zerbitzu bakoitzeko alta mugimenduak ikus daitezke:

Egoitza	UPSI	Eguneko zentroa	Aldi baterako egonaldiak	Tutoretzapeko apartamentuak	GUZTIRA
347	38	72	45	0	492

KABIAko erabiltzaileen gehiengo profila honakoa da: batez besteko 87 urteko adina eta mendekotasun handia duen emakumea.

KABIAK artatu zituen pertsonen artean %70,26 emakumeak izan ziren. Erabiltzaileen batez besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak dira; gizonen batez besteko adina 82,62 urtekoa da; emakumeena, aldiz, 86,68 urtekoa.

	ZERBITZUA	SEXUA	
		EMAKUMEA	GIZONA
ANDOAIN	EGOITZA	87,0	84,0
ARRASATE	EGOITZA	88,0	84,0
AZKOITIA	EGOITZA	87,0	84,0
	UPSI	88,0	79
	EGUNEKO ZENTROA	82,0	81,0
	APARTAMENTUA		80,0
BERGARA	EGOITZA	89,0	86,0
	UPSI	86,0	85,0
EIBAR	EGOITZA	89,0	85,0
ELGOIBAR	EGOITZA	88,0	81,0
ERREENTERIA	EGOITZA	88,0	83,0
	UPSI	85,0	85,0
HERNANI	EGOITZA	86,0	82,0
	UPSI	85,0	77,0
	EGUNEKO ZENTROA	85,0	83,0
IRUN	EGOITZA	87,0	85,0
	EGOITZA	86,0	85,0
LASARTE-ORIA	UPSI	86,0	84,0
	EGUNEKO ZENTROA	86,0	85,0
OÑATI	EGOITZA	88,0	84,0
	EGUNEKO ZENTROA	84,0	83,0
	UPSI	85,0	80,0
ORDIZIA	EGOITZA	85,0	71,0
	ALDI BATERAKOAK	87,0	78,0
PASAIA	EGOITZA	86,0	82,0
	EGUNEKO EGONALDIK	87,0	87,0
TOLOSA	EGOITZA	88,0	83,0
VILLABONA	EGOITZA	91,0	86,0
ZUMAIA	EGOITZA	88,0	83,0


Orotara KABIako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina azken urteetan antzekoa dela ikus daiteke. Kasu guztietan emakumeak dira zaharragoak.

Batez besteko adina													
2017		2018		2019		2020		2021		2022		2023	
E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
86	82	87	83	87	83	88	83	87	83	88	83	87	83


(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Hala eta guztiz ere, aipatu behar da deigarria egiten den datua, Ordiziako egoitzako gizonetzkoen batez besteko adina 71 urtekoa da baina honek badu bere arrazoia eta memoria honetan, 1.3 puntuan, Ordiziako zentroaren bilakaera azaltzerakoan ulertzen da.

Mendekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Aurreko urteetako joera mantentzen da, mendekotasun handia duten pertsonen pertzentila igo delarik.



Zerbitzu bakoitzeko erabiltzaileak bereiztuta ere, gailentzen diren erabiltzaileak mendekotasun maila handia dutenak dira. Ondorengo taulan ikus daiteke:



Hurrengo puntuetan, erabiltzailearen profila zerbitzu bakoitzeko zehaztuta azalduko dugu.

1.2.1 Eguneko zentroak eta eguneko egonaldiak


201 pertsonari eman zitzairen arreta.

Zentroak	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia	GUZTIRA
Artatutako pertsonak	20	92	38	35	16	201


Erabiltzaileen profila 85 urteko emakumea da, nahiz eta artatutako gizonezko kopurua kasik berdina izan.

Adin tartea	Azkoitia	Hernani	Lasarte-Oria	Oñati	Pasaia	GUZTIRA
<65	2	1	0	0	0	3
65-75	1	8	3	7	1	20
76-85	9	36	15	12	4	76


86-95	8	45	19	16	11	99
96>	0	2	1	0	0	3
Batez besteko adina	81,9	84,2	85,5	83,8	86,68	84,4



Erabiltzaileen mendekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen %43ak III. mailako mendekotasuna du, mendekotasun maila handiko profila izan da ere 2023. urtean eguneko zentrotan izan ditugun erabiltzaileena. Ikusi ondorengo grafikan:




Erabiltzaileen tipologiai dagokionean, gailentzen dena, %44,8a, narriadura kognitiboa duen erabiltzailea da. Ikusi ondorengo grafikan:




1.2.2 Egoitzak


Egoitzetan 1.425 pertsonari eman zitzaizen arreta. Egoiliarren profila 88 urteko emakumea eta mendekotasun handikoa da.



Egoitzako erabiltzaileen mendekotasun mailari dagokionean, egoiliarren % 46ak III. mailako mendekotasuna du, mendekotasun maila handiko profila izan da baita 2023. urtean egoitzetan egon ziren erabiltzaileena. Ikus ondorengo grafikan:




Erabiltzaileen tipologiai dagokionean, gailentzen dena, %45,8a, narriadura kognitiboa duen erabiltzailea da, eta ondoren, %41,3a oinarrizkoa. Osasun zama dituzten tipologiaiko erabiltzaileak %9,3 dira eta bestelakoak %3,6. Bestelako hauetan profil psikogeriatricoa, mikroorganismoak edota zehaztu gabeko tipologiaik ditugu. Ikus ondorengo grafikan:




1.2.3 UPSlak


UPSletan 155 pertsonari eman zitzaizen arreta. Erabiltzaileen profila 86 urteko emakumea eta mendekotasun handikoa da.



Erabiltzaileen mendekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen % 48ak II. eta III. mailako mendekotasuna du, hau da, mendekotasun maila aurreratu eta handiko erabiltzaileak izan dira 2023. urtean. Ikus ondorengo grafikan:



Erabiltzaileen tipologiai dagokionean, gailentzen dena, %88,4, profil psikogeriatricoa duen erabiltzailea da. Ikus ondorengo grafikan:



1.2.4 Aldi baterako egonaldiak

2023. urtean egonaldi mota hauek Arrasate, Tolosa eta Ordiziako egoitzetan eskaini ziren.


Ordiziako egoitzan, 2023ko martxotik aurrera, 58 plazetatik 7 plaza aldi-baterako egonaldietara zuzendu ziren. Aldi berean egoitzan 2 plaza larrialdi egoeretara bideratu ziren baina hauen erabilpena aldi-baterako plaza moduan izan da, beharretara egokituz.

Arrasate eta Tolosari dagokionez, zaintza-eredu berrira egokitzeko lanak hasi bitartean, 2023ko urtarrilean, hasi beharreko obregatik hustutako plazak aldi-baterako egonaldiak egiteko erabilgarri egon ziren baina data horietan ez zen okupaziorik egon.


Zerbitzu honetan guztira 45 pertsona artatu ziren eta erabiltzailearen profila 87 urteko emakumea izan zen.



Erabiltzaileen mendekotasun mailari dagokionean, erabiltzaileen %45ak III. mailako mendekotasuna zuen, hau da, mendekotasun maila handiko erabiltzaileak izan dira 2023. urtean. Ikus ondorengo grafikan:



Erabiltzaileen tipologiari dagokionean, gailentzen dena, %56,8, narriadura kognitiboa duen erabiltzailea da. Ikus ondorengo grafikan:



1.2.5. Ordiziako zentroa eta bilakaera

2023ko martxoan, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean Ordiziako San Jose egoitzako 3. solairuan 18 plazaz osatutako unitate berezi bat sortu zen oinarrizko plazen baitan. Erabiltzaileek ondorengo ezaugarriak dituzte:

- Gaixotasun mental arina diagnostikoa duten pertsonak.
- Beren autonomia pertsonalean/sozialean defizit handia eta funtzionamendurako eta gizarteratzeko zailtasun ertainak dituzten pertsonak.
- Egoera psikopatologiko egonkorrean dauden eta drogen edo alkoholaren gehiegizko kontsumorik ez duten pertsonak.
- Bizikidetzan jokabide edo gatazka eredu oldarkorrik ez duten pertsonak.
- Familia- eta gizarte-laguntzaren absentsia, desegokitasuna eta aldi baterako edo betiko ezintasuna duten pertsonak.
- Osasun mentaleko zerbitzuek anbulatorioan artatutako pertsonak.

Unitate honek 2023an 10 erabiltzaile izan zituen, hauetatik 7 gizona izan zirelarik. Adinari dagokionean, emakumeen zein gizonen kasuan 63 urteko batez besteko adina zuten.

Egoitzako gainontzeko beste 2 solairuetako 40 plazak egonaldi iraunkorrak, aldi baterakoak eta urgentziazkoak artatzera bideratu ziren, urgentziazko plazarik 2, aldi-baterakoak 7 eta iraunkorrak 31 izanik.

2. BATERATZE PROZESUA ETA URTEKO KUDEAKETA PLANA

2023ko kudeaketa planaren (eranskina) ekintza nabarmenenak honakoak izan dira:

Zerbitzu eskaintzan erreferente izatea

KABIAko misioa betetze aldera, zerbitzu eskaintzan erreferente izateko ildoari dagokionez, pertsonan oinarritutako arreta eredua ezartzeko urratsak eman dira eta egoitzetan partaidetza guneak egokitzen joan dira.

Eraikinen egokitzapena

Adinekoen egoitzak arreta eredu berrira egokitzeko KABIAko 16 egoitzetatik 5etan egokitzapen obrak bideratu ziren.

1. Arrasateko Iturbide egoitzan 2023ko apirilean hasi ziren obrak. Obrak amaitzean 93 plaza izango ditu egoitzak. Egokitzapen lan horiek lehenengo solairuan eman dira. Obrek iraun bitartean 74 plaza mantendu dira erabilgarri eta obrak gauzatu ahal izateko, 2022ko irailean sarrera berriak eten behar izan ziren esku hartu beharreko eremua hustu eta obrak martxan jarri ahal izateko.
2. Tolosako lurreamendi egoitzan 2023ko apirilean hasi ziren obrak. Obrak amaitzean 139 plaza izango ditu egoitzak. Egokitzapen lan horiek lehenengo solairuan eman dira. Obrek iraun bitartean 119 plaza mantendu dira erabilgarri eta obrak gauzatu ahal izateko, 2022ko irailean sarrera berriak eten behar izan ziren esku hartu beharreko eremua hustu eta obrak martxan jarri ahal izateko.
3. Oñatiko San Martin egoitzan, 2023ko uztailean hasi ziren handitze eta egokitzapen obrak. Obrak amaitu ostean egoitzak 8 oinarrizko plaza gehiago izango ditu. Obra hauek egungo plazei ez die eragin eta mantendu egin dira zentroak eskaintzen zituen zerbitzuak jatorrizko plaza kopuruekin.
4. Lasarteko Atsobakar egoitzan, 2023ko irailean hasi ziren handitze eta egokitzapen obrak. Handitze eta egokitzapen obra hauek, gaur egun dauden plazei ez die eragiten, obrek iraun bitartean mantendu egingo dira egoitzak eskaintzen dituen oinarrizko zein UPSI plazak eta eguneko zentroko zerbitzua. Obrak bukatu ostean, egoitzak 51 plaza gehiago izango ditu eta eguneko zentroak 5.
5. Azkoitiko San Jose egoitzan 2023ko urrian hasi ziren UPSIko unitatea egokitzeko obrak. UPSI berriak jatorrizkoak baino plaza bat gehiago izango du, hau da, 15 plaza izatera pasako da. Obrek iraun bitartean 12 UPSI plaza mantendu dira zentroan bertan. Tutoretzapeko apartamentuen gunean egokitzapenak eginez eta itxaron zerrenda etenda UPSIko erabiltzaileak beste zentroetara lekualdatzea saihestu da. Tutoretzapeko apartamentuetako erabiltzaile bakarra egoitzako zerbitzura lekualdatu zen Azkoitiko Udalarekin koordinatuta.

Arrasate, Tolosa eta Oñatiko egoitzetako obrak KABIAk lizitatu eta bideratu ditu, beste biak aldik Aldundiko Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuak. Azken obra hauen kasuan, KABIA Aldundiarekin elkarlanean aritu da une oro.

Zentroen ekipamendua

Ohiko inbertsioez gain 2023a aparteko urtea izan zen egoitzetako ekipamenduaren berritzeari dagokionez. KABIAk bere 16 zentroetako 991 ohe (plazen %80a), 402 eskaren aurkako koltxoi (behar guztiaz asetuz) eta 716 gau-mahai (plazen %58a) aldatu zituen Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentuarekin elkarlanean bideratutako kontratazioari esker. Arreta eredu berriarekin bat zetozen oheak jarri ziren, egoiliarren beharretara egokituak, etxe-giroa sortuz eta funtzionaltasuna mantenduz.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko neurriak

2023ko uztailan KABIako Berdintasun-batzordea eratu zen. 2023ko abuztuan “Lan-jazarpena, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-orientazio, sexu-identitate edo genero-adierazpenagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa” onartu zen eta 2023ko abenduan KABIako 2024-2027 Berdintasun-plana. Urtean zehar IVAPeko formakuntza eskaintzako berdintasun ikastaroak online egin dira.

Hizkuntza berdintasunaren aldeko neurriak

Hizkuntza berdintasunaren aldeko neurriak ezartzen jarraitu da. KABIak EHUekin elkarlanean aritu da. Zehazki, gerenteak Kudeaketa Linguistiko eta Kulturala Pazientean Zentraturiko Osasun Arretan UPV/EHUren Espezialista Tituluan, “Kudeaketa linguistikoa adinekoen egoitzetan” ikastaroa eman du. Halaber, “Osasuna eta Hizkuntza VI: Hizkuntza beharrak arreta soziosanitarioan” uda ikastaroan parte hartu du “Hizkuntza-eskubideak ala hizkuntza-beharrak? mahai inguruan.

Bateratze prozesuarekin jarraitu

Egoitzetako protokoloak

Prozeduren bateratze prozesuari jarraipena eman zaio egoitzetako hainbat protokolo bateratu sortuz, besteak beste, 126/2019 Dekretuak eskatzen dituen betekizunei aurre egiteko.

Barne-araudi erregelamendua

2023an 16 egoitzekin barne-araudi erregelamendu bateratu bat sortzeko lanketa hasi zen eta 2024an amaituko da bere onarpenak eskatzen duen administrazio prozedura. Erregelamendu hau bateratze prozesuan beste mugarri bat izango da.

Farmabide sistema (29/2019 Dekretuaren aplikazioa)

2023an Eibarko egoitza farmabide sisteman sartu zen sisteman dagoen KABIako laugarren egoitza izanik. Esan behar da prozesu hau Eusko Jaurlaritzako Osasun saileko Farmazia zuzendaritzatik bideratzen dela eta beraz, prozesuaren plangintza ez dago KABIaren esku. Prozesua ahalik eta egokien egiteko KABIA Osasun saileko Farmazia zuzendaritzarekin koordinatzen da.

Kudeaketa zorrotza sustatu arlo prozesuarekin jarraitu

Zerbitzuen kontratazioa

2023. urtean 5 egoitzetako kudeaketa zerbitzuaren lizitazioak prestatu eta adjudikatu ziren; Azkoitia, Lasarte, Pasaia, Villabona eta Zumaia. Lizitazio hauei dagozkien plegu teknikoetan ezarritako betebeharrak eta irizpideei esker bateratze prozesuan aurrera pausuak eman dira beti ere KABIaren misioa betetzea helburu delarik.

Bestalde, kudeaketa zuzeneko 8 egoitzetako sukalde zerbitzu bateratuari zegokion kontratua 2023ko apirilean indarrean sartu zen bateratze prozesuan mugarri bat ezarriz.

Zerbitzu enprekin koordinazioa etengabekoa izan da urte osoan zehar, ohikotasunez bi hilero jarraipen bilerak egin dira eta ez-ohikotasunez beharrek eskatu duten guztietan.

Langileen kudeaketa

Langileen kudeaketari dagokionez, 20/2021 Legearen bitartez langile publikoen egonkortze prozesua arautu zen Estatu mailan eta hori betetzeari ekin zion KABIAk 2022an. 26 deialdietan bildutako 110 plazatarako hautaketa oinarriak negoziatu, onartu eta argitaratu ziren legeak ezarritako epeak betez eta 2023an deialdi bakoitzarekin loturiko izapidetzeak eta azterketa deialdiak burutuz joan ziren.

KABIAren posizioa indartu eta harremanak landu

Aldundiarekin eta foru sektorearekin koordinazio guneak eta harremanak hobetzeko urratsak ematen jarraitu da 2023 urtean zehar.

Beste eragileekin elkarlana

Udalekin eta herriko eragileekin garatutako proiektuei dagokionez, besteak beste, 2023ko abuztuan Bergarako Mizpirualde egoitzan Bergarako udalak eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako auzolandegi programa gauzatu zen. Bertan 17 gaztek parte hartu zuten.

Unibertsitate eta lanbide heziketako zentroekiko harremanari dagokionez, KABIAk berauekin indarrean dituen 13 hitzarmenen baitan 52 ikasleek beren ikasketekin lotutako praktikaldiak bideratu ahal izan zituzten KABIAko kudeaketa zuzeneko zentroetan. Aldi berean, KABIAko zerbitzu zentraletatik ikasketa zentro eta zerbitzu enpresen arteko harremana ere sustatu da kudeaketa integraleko zentroetan praktikaldiak burutzeko.

Azkenik, Gureak Lanean S.A., Gureak Inklusio Fundazioa, Atzegi-Adimen Urriko Pertsonen Aldeko Gipuzkoako Elkarte eta KABIAk indarrean duten hitzarmenaren baitan 2023an 6 pertsonen "Pauso Berriak" programa garatu ahal izan zuten Arrasate, Bergara, Eibar, Tolosa, Hernani eta Irungo egoitzetan.

3. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

3.1. GASTUAK

KABIA foru organismo autonomoan, 2023. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Oblig.	
			€	%
1. Langileria gastuak	18.692.482	15.401.450	15.401.311	100
2. Ohiko gastuak	46.090.657	50.933.269	50.398.765	99
6. Inbertsio errealak	5.188.156	9.749.366	4.817.436	49,4
8. Aktibo finantzarioak	5.000	5.000	0	0
Gastuak Guztira	69.976.295	76.089.085	70.617.512	92,8

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %92,8a likidatu da. Bigarren kapituluan izan da gastuaren proportziorik handiena, bereziki egoitzetako zerbitzu eta hornidura kontratuetako gastu finkoen ondorioz sortutakoa baita.

Seigarren kapituluan egindako gastua aurrekontuaren %49,4 izan da. Hasierako aurrekontuarekiko kreditu gaikuntza handi bat egin zen, egoitzetan hainbat obra eta hornidura egiteko: Arrasate, Tolosa eta Oñatiko egoitzak eredu berrira egokitzeko obren lehenengo fasea, Pasaiaiko egoitzako fatxada birgaitzeko lanak, Eibarko aireztatze-hodien berritzapena, Tolosako ur beroaren instalazioa berritzeko obra, Hernaniko egoitzaren eta udal zerbitzuen arteko banaketako obra, oheen eta osagarrien hornidura, etab. Baina, lizitazio guztiak ezin izan dira 2023an formalizatu eta aurreikusitako kopuru osoa ez da gauzatu.

Hala ere, zentroetako beharrei aurre egiteko, inbertsioak egiteko aukera egon da hurrengo taulan ikus daitekeen moduan:

Inbertsioak: ibilgetua / Inversiones: inmovilizado	Makineria eta Tresneria / Maquinaria y Utillaje	Altzariak / Mobiliario	Informatikarako ekipamenduak / Equipos informáticos	Eraikuntzak/ Construcciones	Aplikazio informatikoak/ Aplicaciones informáticas	Guztira / Total
Zerbitzu Zentralak	0,00	9.043,06	27.650,40	0,00	84.366,02	121.059,48
Andoain	22.347,31	174.400,25	0,00	24.627,05	0,00	221.374,61
Arrasate	7.963,52	121.562,65	0,00	536.712,67	0,00	666.238,84
Azkoitia	28.476,96	133.884,71	0,00	46.347,73	0,00	208.709,40
Bergara	7.583,47	120.235,40	0,00	77.297,82	0,00	205.116,69
Eibar	22.336,34	230.149,90	1.970,88	79.129,50	0,00	333.586,62
Elgoibar	7.430,27	38.710,80	0,00	0,00	0,00	46.141,07
Errenteria	32.210,18	272.778,17	0,00	0,00	0,00	304.988,35
Hernani	95.097,87	252.403,56	0,00	168.876,54	0,00	516.377,97
Irun	90.460,63	94.628,25	0,00	0,00	0,00	185.088,88
Lasarte	21.729,61	108.176,31	0,00	0,00	0,00	129.905,92
Oñati	33.846,55	146.659,26	0,00	343.964,23	0,00	524.470,04
Ordizia	76.768,09	87.211,15	0,00	15.064,79	0,00	179.044,03
Pasaia	38.365,04	76.548,52	0,00	136.879,18	0,00	251.792,74
Tolosa	49.384,47	265.634,04	0,00	448.344,95	0,00	763.363,46
Villabona	10.906,57	22.601,59	0,00	12.311,10	0,00	45.819,26
Zumaia	24.296,08	71.898,73	0,00	18.164,25	0,00	114.359,06
Guztira / Total	569.202,96	2.226.526,35	29.621,28	1.907.719,81	84.366,02	4.817.436,42

3.2. DIRU SARRERAK

KABIAk, 2023. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

Kapitulua	Hasierako aurr.	Behin bet. aurr.	Onart. Eskubid. Garbiak	
			€	%
3. Tasak eta bestelakoak	18.375.614	18.375.614	21.235.887	115,6
4. Transf. arruntak	46.406.525	45.579.789	45.396.530	99,6
5. Ondare sarrerak	1.000	1.000	164.590	16.459
7. Kapital-transferentziak	5.188.156	6.071.532	6.071.532	100
8. Aktibo finantzarioak	5.000	6.061.149	0	0
Sarrerak Guztira	69.976.295	76.089.084	72.868.539	95,8

Kopururik handiena transferentzia arrunten bidez jasotakoari dagokio, nahiz eta, erabiltzaileen ekarpenak espero baino handiagoak izan diren.

Ondare sarrerei dagokionez, onartutako eskubide garbiak aurreikusitakoa baino nabarmen handiagoak izan dira KABIAk bere kontu korranteetan mantendu duen batez besteko saldoa dela eta.

ERANSKINA. KABIako KUDEAKETA PLANA: HELBURUEN BETETZE MAILA

Kudeaketa planeko ekintzen betetze maila ulertzeko, koloreek ondorengo esanahia dute:

■ Ez da egin ■ Hasi da, amaitu gabe ■ Urteko helburua egina

Znb	Ardatzak	Helburu estrategikoak	Lan ildoak	Ekintzak	Aurreikusita ko hasiera data	Aurreikusita ko amaiera data	AURRERAPEN MAILA (%)
1	Zerbitzu eskaintzan erreferente izatea	Personarengan oinarritutako zerbitzua egoitza guztietan ematea	Aldundiko arreta eredu berrira egokitu, pertsonen bizi-kalitatea erdigunean ipinita	Egoiliarren bizitza historiaren jaso eta lantzeko tresnen inguruko sentsibilizazioa eta formakuntza	2023/1/1	2023/12/31	■
				Egoitzetan ariketa fisikoa sustatzeko sentsibilizazio eta formakuntza	2023/1/1	2023/12/31	■
				Arrasate, Oñati eta Tolosako egoitzetako erailkintan espazio bat Aldundiko arreta eredu berrira	2023/1/1	2023/12/31	■
				Sukalde zerbitzua bateratu eta kontratazio deialdietan jaso	2023/1/1	2023/12/31	■
				Erabiltzaileen eta senideen partaidetza bultzatu bateratu eta barne araudian jaso	2023/1/1	2023/12/31	■
		Larrialdi sanitarioen prebentzioa eta hauei aurre egitea	COVID plana betetzea	NBE hornidura bermatu eta koordinatu	2023/1/1	31/12/2023	■
				Eskumena duten erakundeen jarraibideak ezarri eta egoerara egokitu	2023/1/1	31/12/2023	■
		Hizkuntza eta genero berdintasunaren bultzatzaile	Euskara zerbitzu, lan eta komunikazio hizkuntza izan dadin indartu eta bultzatzen jarraitu	KABIako arreta ereduaren hizkuntza berdintasunaren garrantzia zabaldu	2023/1/1	2023/12/31	■
				GFAko planeko ekintzetan parte hartu	2023/2/1	2023/12/31	■
				Berdintasun batzordea eratu	2023/7/1	2023/12/31	■
				Emakume eta gizonen berdintasuna	Emakume eta gizonen berdintasun plana egin	2023/9/1	2023/12/31
		Hornitzaile estrategikoekin lankidetzatza	Zerbitzu enprekin koordinazioa eta komunikazioa mantendu	Urte osoan zehar zerbitzu asistentzialaren gaineko jarraipena eta koordinazioa egin	2023/1/1	2023/12/31	■
				Inbertsio plana egin	2023rako Inbertsio plana burutu eta 2024rako proposatu	2023/1/1	2023/12/31
					Egoitza guztietako altzarien hornidurak bideratu	2023/3/1	2023/12/31

Znb	Ardatzak	Helburu estrategikoak	Lan ildoak	Ekintzak	Aurreikusita ko hasiera data	Aurreikusita ko amaiera data	AURRERAPEN MAILA (%)	
2	Bateratze prozesuarekin jarraitu	Azken zentro publikoen integrazioa KABIAN	Udal egoitza guztiak KABIAN integratuta daude (2021)					
		KABIAren jarraibide komunak definitu	Prozesu maparen lan prozedurak bateratu eta inplantatu	Barne araudia eta egoiliarren kontratua bateratzea.	44927	2023/12/31		
				Kabiako informazio segurtasun sistema ezartzeko ekintza plana gauzatzen jarraitu	2023/1/1	2023/12/31		
				Ondare erantzukizuneko irizpideak Kabiaren ardura mugatzerik dagoen argitu eta horretarako prozedurak zehaztu	2023/2/1	2023/12/31		
				Farmazia dekretura egokitu, Osakidetza ahalbidetutako neurrian. Erreferentzizko farmazien kontratazioa.	2023/1/1	31/12/2023		
				Lan prebentzio arloa eguneratzen eta bateratzen jarraitu	2023/1/1	31/12/2023		
				Egoitzetako prozedura eta protokoloak egokitu 126/2019 DEKRETUAK ezartzen diuen betekizunetara	2023/1/1	31/12/2023		
				Aplikazio informatikoak garatu, bateratu eta integrazioak landu	Resiplus aplikatiboa garatzen jarraitu eta erabilera bultzatu	2023/1/1	2023/12/31	
				2022ko Egonkortze prozesuko EPEko deialdiak egiteko Hautaketa aplikazioa egokitu da	2023/1/1	2023/6/1		

Znb	Ardatzak	Helburu estrategikoak	Lan ildoak	Ekintzak	Aurreikusita ko hasiera data	Aurreikusita ko amaiera data	AURRERAPEN MAILA (%)
3	Kudeaketa zorrotza sustatu arlo ekonomikoan, asistentzian eta langilerian	Langileen ongizatea eta motibazioa sustatu	Langileen prestakuntza plana	2023eko prestakuntza plana prestatu eta burutu.	2023/1/1	2023/12/31	
			Langileen ongizatea	Prestakuntza planean, lan eremuan adimen emozionala lantzeko prestakuntza orokor bat txertatu langile guztientzako	2023/9/1	2023/12/15	
				Lan-jazarpena, sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena eta sexu-orientazio, sexu-identitate edo genero-adierazpenagatiko jazarpenari aurre egiteko protokoloa landu, adostu eta onartu	2023/7/1	2023/12/31	
		Kontratazio prozesua indartu	Kontratuen baldintzen betetzearen jarraipen zorrotzarekin jarraitu	GFArekin koordinatu jarraipen prozedura bateratu bat lantzeko	2023/1/15	2023/10/31	
			Kontratazio plana egin eta gauzatu	2023ko kontratazio plana egin eta gauzatu	2023/1/1	2023/12/31	
		KABIAren egitura egokitu eta osatu	GFA, GP Departamentuarekin eta Uliazpirekin kontratazio arloan elkarlana eta koordinazioa	Koordinazioa areagotzeko proposamenak landu eta garatu	2023/1/1	2023/12/31	
				Zerbitzu Zentral etako organigrama osatzeko lanpostuak sortu eta bete	2023/1/1	2023/12/31	
		Aurrekontuaren kudeaketa eraginkorra	Erabiltzaileen ekarpen eta zorren kudeaketa adostu	2022ko Egonkorte EPEa garatzeko neurriak hartu eta bideratu	2023/1/1	2023/12/31	
				Premiamenduzko bidea Ogasunarekin adostu eta aurrera eraman	2023/1/1	2023/12/31	
				Resiplus bidez erabiltzaileen ekarpenak bideratzeko egokitzeak egin eta abian jarri	2023/1/1	2023/12/31	

Znb	Ardatzak	Helburu estrategikoak	Lanildoak	Ekintzak	Aurreikusita ko hasiera data	Aurreikusita ko amaiera data	AURRERAPEN MAILA (%)
4	KABIaren posizioa indartu eta harremanak landu	GFA eta KABIaren harreman markoa zehaztu eta lankidetzako gobernantza indartu	GFA eta KABIaren arteko lankidetzako gobernantzako mekanismoak garatu	Harreman markoaren irizpideak landu	2023/1/1	2023/12/31	
			GP Departamentua eta KABIaren arteko lankidetzako gobernantzako mekanismoak	Harreman markoaren irizpideak landu	2023/1/1	2023/12/31	
		Egoitzak dauden udalekin lankidetzako gobernantza mekanismoak garatu	Foru Sektorre Publikoa eta KABIaren arteko lankidetzako gobernantzako mekanismoak	Harreman markoaren irizpideak landu	2023/1/1	2023/12/31	
			Kabiak Udalekin sinatutako hitzarmenen jarraipena egin	Hitzarmenen iraupenak kontrolatu eta, beharrezkoa bada, luzapenak egin	2023/2/1	2023/12/31	
		Beste eragileekin elkarlana	Udalekin eta herriko eragileekin proiektuak garatu	Egoitzetan udalekin eta herriko eragileekin proiektuetan elkarlana.	2023/1/1	31/12/2023	
			Adinekoen elkarteekin elkarlana egin eta adinekoen kontseiluan parte hartu	Adinekoen kontseiluan parte hartzea bermatu	2023/1/1	2023/12/31	
			Beste egoitzekin elkarlana bideratu (praktika onak partekatu)	Sortzen diren proiektuetan parte hartu	2023/1/1	2023/12/31	
			Beste eragileak	Pauso Berriak programari buruzko hitzarmenen jarraipena eta luzapena Hainbat erakundeekin hitzarmenak sinatu ikasleen eta profesionalen praktikak egiteko	2023/1/1	2023/12/31	
		Gizarteari proiektatzen zaion irudia landu	I+G+b ekintzetan parte hartzeko eskaera badago, parte hartu	UPV-EHUrekin elkarlan proiektua garatu, egoitzetan ariketa fisikoaren garrantzia nabarmentzeko	2023/1/1	2023/12/31	
			Kudeaketa onaren kontu ematea (web gunea berritu)	Web gunea berritu	2023/1/1	2023/12/31	